

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2787

*851/2024 EBAZPENA, maiatzaren 23koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Francisco Javier García Alonso jauna izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Intentsiboko Osasun Ataleko (Unitate Balioaniztuna) buru, aldi baterako, lau urte luzagarri.*

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentearen martxoaren 29ko 444/2023 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESIko Medikuntza Intentsiboko Osasun Ataleko (Unitate Balioaniztuna) buru lanpostua betetzeko lehiaketa sistemaren bidez (2023ko apirilaren 21eko EHAA 76 zk. eta 2023ko maiatzaren 2ko BOE 104 zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Francisco Javier García Alonso jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Intentsiboko Osasun Ataleko (Unitate Balioaniztuna) buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Francisco Javier García Alonso jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Intentsiboko Osasun Ataleko (Unitate Balioaniztuna) buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau erkidean ezarritakoarekin bat, eta 2024ko maiatzaren 23tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen Zuzendaritzari Ebazpen honen berri ematea.

2024ko ekainaren 10a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Donostia, 2024ko maiatzaren 23a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa)

Langileen zuzendaria,  
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.